BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIAREN KLAUSURAKO FESTAKO CATERING-ZERBITZUA KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea da catering-zerbitzua kontratatzea Donostia Zinemaldiaren klausurako festarako eta sarituen afarirako, afaria Miramar jauregian egiten bada, plegu honetan, klausula administratibo partikularren pleguan eta honen karatulan aurreikusitakoaren arabera.

Sarituen afaria ez bada Miramar jauregian egiten, kontratuaren xedetik kanpo geratuko da.

2.- ZERBITZUARI BURUZKO ZEHAZTAPENAK

Klausurako festa Zinemaldiaren azken egunean egiten da eta 2023koa irailaren 30ean izango da (larunbata). Zerbitzua Miramar jauregian emango da, baina gerta liteke etorkizuneko edizioetan espazioa aldatzea.

Enpresa adjudikaziodunak baxera, beirateria, mahai-tresnak, mahai eta ezpain zapiak, aulkiak eta mahaiak eraman beharko ditu, baita zerbitzari-zerbitzua ere. Jasangarritasunagatik, baxera eta beirateria guztiak berrerabilgarriak edo biodegradagarriak edo konpostagarriak izan beharko dira.

Enpresa lizitatzaileak hondakinak tratatzeko plan bat izan beharko du, eta dagokion edukiontzian sailkatu beharko ditu.

Festak 2 zerbitzu izan ditzake:

- Sarituen afaria: Ordutegia: 21:00etatik 01:00etara. 140 lagun, gutxi gorabehera.
- Catering orokorra: Ordutegia: 00:00etatik 03:00etara. 1.000 lagun, gutxi gorabehera.

Catering-zerbitzuaz gain, ardoa, garagardoa, freskagarriak eta ura zerbitzatzeko barra libreak eskaini beharko dira. Zinemaldiak xanpain edo edari espiritutsuekin loturiko babesletza-akordioren bat baldin badu, gainerako edariekin batera zerbitzatu beharko da.

Enpresa esleipendunak Zinemaldiko zuzendaritzaren eta produkzioaren jarraibideak bete beharko ditu.

Enpresa esleipendunak festarako behar diren altzari guztiak eman beharko ditu, kontuan hartuta 2 gune daudela: Gune orokorra (akreditatuentzat, erakunde bazkideentzat, kolaboratzaileentzat, etab.), eta sarituen afaria. 2. gutun-azalean, proposatutako altzarien argazkiak, xehetasunak eta ezaugarriak aurkeztu beharko dituzte lizitatzaileek.

Pleguaren amaieran, barrutiaren planoak kontsulta daitezke.

3.- OTORDU-ZERBITZUA

Enpresa esleipendunak bi motatako eremuetarako otordu-zerbitzua behar bezala emateko behar diren giza baliabideak eta bitarteko teknikoak jarri beharko ditu. Hau da, parkeko espazio irekia eta eraikinaren barrualdekoa, jankide kopurua eta gonbidatuen etorrera-erritmoaren araberako zerbitzu-denbora kontuan hartu beharko ditu, otordu-zerbitzua eta/edo zerbitzarien zerbitzua ekitaldiko beharretarako egokiak izan daitezen.

4.- MUNTAKETA, DESMUNTAKETA ETA GARBIKETA

Muntaketa ekitaldiaren egunean bertan egingo da eta ekitaldia amaitu ondoren desmuntatuko da. Instalazioak, bai barrukoak bai kanpokoak, gau horretan bertan garbitu beharko dira.

5.- ELIKAGAIAK HORNITZEA

Enpresa esleipendunak eremu bakoitzeko menua zuzen eta ondo egiteko behar diren elikagaiak jarri beharko ditu, kalitatezko estandarrak betez. Zinemaldiak beretzat gortzen du edari- edo elikagai-marka jakin batzuk emateko eskubidea, bere babesletza-akordioen arabera.

Enpresa lizitatzaileek ordezko aukerak aurreikusi eta proposatu beharko dituzte (menu begetarianoak, alergikoentzako edo intolerantziak dituztenentzako menuak…), eta menuarekin lotuta izan litezkeen alergenoei buruzko informazio guztia eman beharko dute.

Catering eta menuen proposamenak jasangarria eta ingurumena errespetatzen duena izan beharko du, tokiko hornitzaileen produktuak lehenetsiz, zero kilometrokoak eta sasoikoak.

Ezingo da Zinemaldiak baimendu gabeko marken publizitaterik erakutsi.

Enpresa esleipendunak beharrezkoak diren bitarteko teknikoak eta giza baliabideak eduki beharko ditu elikagaiak elikadura-enpresatik klausurako festa egingo den instalazioen barruko biltegira garraiatzen dituen bitartean horien hotz-kateari eustea bermatu ahal izateko. Era berean, instalazioaren barruan janaria berotu edo prestatu ahal izateko beharrezko baliabideak jarriko ditu.

6.- ZERBITZARIEN UNIFORMEAK

Uniformeak ematea enpresa esleipendunaren kontura izango da. Zinemaldiak uniformeen diseinua edo aukeraketa gainbegiratuko du.

7.- HIZKUNTZAK

Enpresa esleipendunak gonbidatuekin harremanetan egongo diren lantaldeko kide guztiak bai euskaraz bai gazteleraz moldatzeko gai direla bermatu beharko du. Ingelesa jakitea kontuan hartuko da.

8.- ESPAZIOARI BURUZKO ZEHAZTAPENAK

Enpresa esleipendunak espazioaren ezaugarri fisikoak kontuan hartu beharko ditu. Zinemaldiak bai barrualderako bai kanpoalderako proposatzen diren altzarien banaketa aldez aurretik onartu beharko du. Egun horretarako aurreikusitako klimaren eragina kontuan hartu beharko da, banaketa berriz diseinatzea eragin baitezake.